



Durangoko XXVI Liburu eta Disko Azoka

Baldin Bada-ren 'Lurralde Kolpatuak' kalean da

Irungo taldeak Durangon aurkeztu du hirugarren LPa Oihuka disketxearen eskutik

Katu, Dani, Santi eta Iban —baterijole berria— Baldin Bada taldearen hirugarren diskoa dena osatu, grabatu eta jarri dute kalean. 'Lurralde Kolpatuak' izeneko diskoan musika estilo desberdinak biltzen dituzten hamahiru kantu osatu ditu mugako taldeak. Irungo Moscu auzoan izan ginen laukotearekin mintzatzen.

LOREA AGIRRE / IRUN

Orain zazpi urte eman zituen lehen urratsak Irungo Baldin Bada taldeak. Ordudanik euriak gogotik egin du. Hirugarren lana kaleratu berri du Irungo taldeak, 'Lurralde Kolpatuak'. Lehenengo diskoko ska erritmoek, gitarra gogorrei eman zien paso bigarren elepearekin. Azkenean honetan ere gauza berririk badela adierazi digute taldekideek. «Lehenengo diskotik bigarrenera dauden adina desberdintasun daude bigarrenetik hirugarrenera ere. Baldin Bada ez da inoiz musika mota zehatz batean definitu den taldea. Oraingo honetan inoiz jorratu ez ditugun estilo eta erritmoei heldu diegu. Hala ere, ez da dena berria, aurreko disko gitarra indarra ere hor dago».

Definitzeko erraza ez bada ere, «mestizoa» dela hirugarren disko hau aipatu digute. «Musika mestizoa da, nahasketa handiak dituena. Oinarri sendoak ditu diskoak eta musika askoz ere landuagoa dago». Baldin



Katu, Santi, Iban —baterijole berria— eta Dani, Baldin Badako kideak.

AITOR BAYO

Badak beti egin izan ditu laburrak, doiak. «Oraingo honetan ere, kantuetan sobran egon zitekeen gutzia kanpoan utzi dugu. Adibidez hiru abesti egiteko materiala izaki ere, bakarria egin dugu, zentzu honetan asko landu ditugu kantuak. Gure helburua, monotoniarekin haustea da».

Hala ere, talde honen berrikuntza oraingoan, ez dagokio musikari soilik. Baterijolea aldatu egin dute. Orain hilabete gutxi arte Les Mécaniciens taldearekin aritu den baterijole gaztea, Iban, Baldin Badakoekin hasi da. «Bi hilabete daramatza gurekin. Egia esan diskoko abesti pare bat bera etorri baino lehenago graba-

tuak genituen eta zentzu batean arazoa izan da baterijole aldaketa. Baina esan beharra dago, hain denbora gutxian Ibanek egin duen lana ez luze edonork egingo. Oso ondo moldatu gara».

Hogei egun baino gehiago egon dira Elkarren Lasarteko estudioetan grabaketa lanetan. «Emaizarekin

«Baldin Badari beti gustatu izan zaio estilo desberdinak jorratzea eta oraingo honetan ere berdin egin dugu».

oso gustora geratu gara» adierazi digute. Lehenengo bi elepeak grabatu zituzten tekniko berberarekin aritu dira oraingoan. «Elkar ondo ezagutzen dugu eta badaki zer nahi dugun. Izugarritzko laguntza da guretzat, ondo ulertzen dugu elkar».

Ez dute kezarik inondik inora. Gogo handiz heldu zioten hirugarren lan honi, eta horri eskerrak dena behar zen bidetik joan da. Bi hilabete eskas eman dituzte kantuak sortzen. «Musika testuaren gainean landu dugu. Testuak une oro zein musika zegokion esaten zigun. Honen ondorio da ez dakizula zehatz mehatz kantua nola amaituko den eta gauza desberdinak sortzen direla. Baldin Badari beti gustatu zaio estilo desberdinak jorratzea eta honetan ere berdin egin dugu». Betiko legez, kantuak labor, hamahiru orotara 'Lurralde Kolpatuak' diskoan.

«'Lurralde Kolpatuak' izena jarri diogu, testu guztiak ikusi ondoren, lotzen zituen zerbait topatu genuelako. Horixe izango litzateke diskoaren hitzen ideia». Euskal Herriko gaiak erabili dituzte batez ere, baina baita bestelako gai puntualak ere.

EUSKAL HERRIAN MUSIKA GOGOR Esan bezala, zazpi urte daramatza bizka-

rrean talde honek. Rock Radical Vasco deituriko garaian sortuak izanik, oraingo musika egoerarekin alderatzeko eskatu diegu. «Mugida hura orokorra izan zen, ez bakarrik musikan. Jendea konturatu zen musika talde bat egitea erraza zela, materiala bazegoela eta zertaz hitzegun ere». Eztanda hura bilakatu egin dela garbi ikusten dute, orain beste gai batzuk eta musika batzuk entzuten direla. «Garai hartako mezu zehatza, itxura... eta beste aldatu egin da. Lehen festa, jaia, borroka zen. Oraingo taldeak serioago hartzen dute eta profesionalagoak dira, garai hartakoak baino maila altuagoa ematen dute, indar handiarekin ari dira lanean, atzetik bultzaka datoz. Egunen batean, orain goi mailan dauden lekuan jarriko dira». Baldin Badakoek argi utzi nahi dute, gaur egun Euskal Herrian musika ondo eta gogor egiten dela, izugarritzko mugimendua eta taldeak barra-barra daudela. «Horietatik aurrera irtengo duten taldeak, musika pertsonala egiten dutenak dira. Adibidez talde asko daude Barricadaren antz izugarria dutenak eta horiek irtetea zailago ikusten dugu. Dena den, irteteko aukerak eman behar zaizkie, hau da kontzertuak».

BIZI IRAKURRIZ

MOMO, KALEKO LEGEA, BANPIRO TXIKIA, BABAR, IGEL ETA UBEL, AMAIGABEKO ISTORIAO.....

Gaurko Irakurketak

ENDE, DAHL, NOSTLINGER, DURREL, LOBEL, HINTON.....

Gaurko Idazleak

Haur-Gazte Saila

ALFAGUARA



DESCLÉE DE BROUWER

IRAKURKETA BIZIAK



Eska itxazu zure liburudendan edo Desclée De Brouwer. Henao, 6 48009 BILBO - Tels.: (94) 423 30 45-424 68 43

egin
zaitez
harpidedun

JAKIN

Tolosa hiribidea, 103-1. C - 2009 DONOSTIA - Tel.: 21 80 92

Oihuka-ren Nobedadeak


Durangoko Disko Azokarako



MATRAKA



SASOI ILUNAK



BALDIN BADA

...eta laister M.C.D.

OHIUKA Amaia, 2B 4D Tfua.: 22 93 85 IRUINEA